

LEHENENGO ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko bost informazio entzungo dituzu.

Zuk ariketa honetan (A-K) esaldiak dituzu, eta entzungo duzun informazio bakoitza dagokion esaldiarekin parekatu behar duzu beheko taulan. *0 zenbakia* adibidea da, eta bost esaldi sobran daude.

Esaldiak

- A. Dibortziatu diren emakumeei laguntzeko elkarte.
- B. **Ekonomiari buruzko berria.**
- C. Enpresak sortzeko laguntza eskaintzen du elkarte batek.
- D. *Eroski* supermerkatuak erosleei eskaintzen dien zerbitzua.
- E. *Eroski* supermerkatuak ez ditu kaloria gehiegi dituzten elikagaiak salduko.
- F. Gero eta gizon gehiagok izan nahi dute emagin.
- G. Gizonezko emaginak gero eta gutxiago dira urtetik urtera.
- H. Japoniarrek hil zituzten euskaraz zekiten soldadu guztiak.
- I. Marte planetan betiko geratzeko asmoa azaldu dute zenbait ikerlarik.
- J. Martetik bueltan, ikerlariak emango dute estazio espazialaren berri.
- K. II. Mundu Gerran euskarak bere garrantzia izan zuen.

Informazioa	0	1	2	3	4	5
Esaldia	B					

BIGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan Miren Azkarateri egin dioten elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean bezala (0 zenbakia).

0. Nori egin diote elkarrizketa?
- a) Andoni Egañari.
 - b) Miren Azkarateri.
 - c) Patxi Altunari.
6. Miren Azkarate(k)...
- a) Euskal Herriko Unibertsitateko bozeramaile izendatu dute duela gutxi.
 - b) oraindik ere segitzen du politikan.
 - c) politika utzita, bere ohiko zereginetara bueltatuta dago.
7. Miren Azkarate eta Euskal Telebista (ETB).
- a) ETB zuzentzen aritu zen hamar urtez.
 - b) ETBko euskara arduradun ere izan zen akatsak zuzentzeko.
 - c) ETBko hainbat saiotan parte hartu zuen euskara gaitzat zuela.
8. Kike Amunarrizek nabarmendu du Miren Azkarateren...
- a) argitasuna edukiak azaltzeko garaian.
 - b) jakintza-maila gramatika alorrean.
 - c) umorerako abilitadea.
9. "Pitin bat" hitza edo makulua.
- a) Goitzen hori jarri zioten Mireni unibertsitatean.
 - b) Argi dago orain ez duela hitz hori erabiltzen.
 - c) Telebista-saio baten izena izan zen.
10. "Balinda" hitza.
- a) Gaur egungo euskaran errotuta dago.
 - b) Hurrei lotutako hitza da.
 - c) Unibertsitateko gazteen artean oso zabalduta dago.

Galdera	0	6	7	8	9	10
Erantzun egokia	B					

HIRUGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratian Miren Arzallusi egin dioten elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean bezala (0 zenbakia).

0. Zein da Miren Arzallusek idatzi duen liburuaren izenburua?
- a) Cristóbal Balenciaga: Maisuaren eratzea. Jaio zenetik Parisera joan arteko urteak.
 - b) Cristóbal Balenciaga: Maisuaren eratzea. Jaio zenetik Parisera joan arteko urteak (1895-1936).
 - c) Maisuaren eratzea. Jaio zenetik Parisera joan arteko urteak.
11. Cristóbal Balenciagak josten ikasi zuen...
- a) Getariako markesa baten eskutik.
 - b) Martina Eizagirrereengandik.
 - c) Parisen.
12. Balenciagak txikitatik lotura estua izan zuen mundu aristokratikoarekin.
- a) Amaren lanbideari esker.
 - b) Hautzaroa Parisen eman zuelako.
 - c) Jatorri aristokratikoa zuen familian jaio zelako.
13. 16, 17, 18 urterekin Parisen ikusi zuen joskintza-industriaren aldaketa(k)...
- a) Donostian emana zegoen urte dezente lehenago.
 - b) eraman zuen Balenciaga jantziak seriean egitera.
 - c) ez zuen erakarri.
14. Donostiako lehen joskintza-etxearen eredu.
- a) Betidanik ezagutu zuen ereduari eutsi zion.
 - b) Ez zen jostunaren eta bezeroaren arteko harremanean oinarritu.
 - c) Parisetik ekarritako joskintza industrialean oinarritu zen.
15. Donostian lehenengo denda izatetik hiru izatera pasatu zen.
- a) Denda bakoitzak estilo bana zuen.
 - b) Hirurei izen bera jarri zien, estiloak ezberdinak baziren ere.
 - c) Hiruretan estiloak berberak ziren; izenak, ordea, ezberdinak.

Galdera	0	11	12	13	14	15
Erantzun egokia	B					